



TOLOSA

BERTSOZALEA ASEBETETA

Beste urte batez harrera beroa izan du Ataria Bertso Jaialdiak, eta Leidor antzokia bete duten zaleek gozatu ederra hartu dute Amaia Agirrek, Nerea Ibarzabalek, Andoni Egañak, Maider Arregik, Sustrai Colinak, Onintza Enbeitak eta Xabat Illarregik emandako ikuskizunarekin ¹²

Txarangetako doinuak moldatu ditu Et Incarnatus orkestrak

Hainbat artistarekin batera grabatu eta 'Kaletik orkestrara' diskoan jaso dituzte. Kontzertua emango dute Leidorren, otsailaren 8an ¹⁵

Herriarteko Bertsolari Txapelketa Gipuzkoan, hirugarrenez

57 taldek hartuko dute parte, eta lehen fasea martxoaren 28ra artekoa izango da. Finala Aian izango da, maiatzaren 30ean ¹²

Alpino Uzturre elkarteak aurtenera ere bi talde izango ditu

Mendi lasterketa taldea 20 kidek osatzen dute. Iraupen eskiko taldea Euskal Herrian dauden hiru taldeetako bat da ¹⁶

Bagatoz
lanera, heztera,
jolastera,
eraldatzera

IKASTOLAK

BAZATÓZ?

Aurrematrikulazio epea: otsailaren 2tik 13ra

ANOETAKO
HERRI IKASTOLA

Anoetako Herri Ikastola
943 652 932
www.anoetakoherriikastola.eus

Laskorain
ikastola

Laskorain Ikastola (Tolosa)
943 697 122
www.laskorainikastola.eus

Irurako
Ikastola

Irurako Ikastola
943 694 374
www.irurakoikastola.eus

inmakulada
IKASTOLA

Inmakulada Tolosako
Lanbide Ikastola
943 673 629
www.inmakuladatolosa.eus

ZUBIMUSU
IKASTOLA

Herri Onurako Kooperatiba

Zubimusu Ikastola
(Villabona/Zizurkil)
943 692 321
www.zubimusuikastola.eus

Uzturpe
ikastola

Uzturpe Ikastola (Ibarra)
943 671 299
www.uzturpe.eus

Kopla zaharrak eta berriak, bertsoen urteroko hitzorduan

Ataria Bertso Jaialdiak sarrerak ia agortzeraino bete zuen larunbatean Tolosako Leidor antzokia • Saioak umoretik adina izan zuen hausnarketatik eta kritikatik

-A. ARROYO ASKARAI

Harrera beroa izan du beste urte batez ATARIAk bertsoarekin duen urteroko zitak. Aurren ere ia sarrerak agortzeraino bete dute Leidor antzokia bertsozaleek, eta ATARIAren zein komunitatearen garrantzia aipatuz hasi zuen saioa Amaia Agirre gai-jartzaileak.

Lehen agurretatik nabarmendu zen giroa: gertukoa, konplizea eta, aldi berean, zorrotza. Jaialdiak gaurkotasunari estu helduta abiatu zuen bidea, eta nazioarteko testuinguru geopolitikoa izan zuten gaitzat Sustrai Colinak eta Nerea Ibarzabalek. Paseoan zebiltzan bi lagun azaleatik abestu zuten Trumpi eta Venezuelari buruz, eta nola umoretik hala kezkatik plazaratu zituzten hausnarrerako bertsoak.

Osasungintza, bertso gai

Nazioartetik gai sozialetara, osasungintza izan zen hurrengo gaia. Onintza Enbeita eta Maider Arregi ama-alaba bailiran aritu ziren elkarrizketan, besteak beste, lan-baldintzen gogortasuna eta zaintzaren zama pertsonala gurutzatu ziren bertsoetan. Lana eta sendia uztartzeko zailtasuna izan zen, gutxi-asko, ariketako gai behinena.

Segidan tonua arindu eta umoretik aritu ziren, kontrara, Andoni Egaña eta Xabat Illarregi. Ama anbulatoriora eramane zuten Egañak, eta odola emateko aukera zuela ikusita, egitea erabaki zuen. Kontsultara sartu bezain laster egin



Ibarzabalek eta Colinak Trump eta Venezuela izan zuten hizpide. A. ARROYO

zuen zalantza, ordea, Illarregik medikuaren roletik. Bata beste fin zirikatuz, barrerako gai izan zituzten adina, osasuna eta elikadura.

Pentsiodunak oholztan

Une batez Agirreren jarduna osatu zuen Nekane Berriotxoak, Oneka euskal emakume pentsionisten plataformako kideak. Euren aldarrikapenak publikoari azaltzearekin batera, bakarka aritzeko gai bezala jarri zizkion Maider Arregiri, eta aldarriak bertsoetan borbilduz aritu zen Arregi.

Gai sakonetik, atzera, umore egin zuten jauzi ariketa aldatzearekin batera; eta esperimentu bat ere egin zuten. Aitor Txarterina marrazkilaria igo zuten oholztara, eta Egañak zein Ibarzabalek bertsoetan



Goian, marrazkilaria lanean; behean, Xabiartxoren irudia. A. ARROYO

deskribatu zioten zer margotu behar zuen. Iruditik harago, berriz ere umorez eta zirikat aritu ziren bertsolariak elkarrekin zein marrazkilariekin.

Ariketa berriaren ondotik, Xabiartxo liburuko pertsonaia oholztaratu zuten, eta lehen argitalpenaren mendeurrena abiapuntutzat hartuta bakar-kako hausnarketan Colinak hizpide izan zituen, besteak beste, Francoren diktadura, euskara eta gaur egungo egoerarekiko kezka.

Onintza Enbeita umorearen eta hausnarketaren artean aritu zen, berriz, Agirrek proposatutako bakarkakoan: Bizkaiko Bertsolari Txapelketan puntu erdi bategatik egin zion ihes txapelak, eta horixe izan zuen bertsoetarako abiapuntu.

Bertsolariak, nahierara

Saioak aurrera egin ahala, askotarikoak izan ziren gaiak eta formatuak: Korrikaren bueltan bertsoetan aritu ziren Arregi, Egaña, Ibarzabal eta Illarregi; sagardotegi giroko parranda batean elkarrekin ligatzeaz Colina eta Enbeita; Zegamako mendi maratonia egin zuenekoaz Egaña; San Anton eguneko mezara animaliak bedeinkatzera eramateaz Arregi, Colina, Ibarzabal eta Illarregi; Aiara Agirrezabala futbol jokariak propio bideo bat grabatu zuen saiorako, eta hortik abiatuta ere aritu ziren Enbeita eta Egaña; eta bukatzeko, puntutan nahierara aritu ziren Colina eta Illarregi.

Ariketa guztietan agerian geratu zen bertsolarien moldakortasuna, eta bat-batekoan aritzeko gaitasuna.

Amaierako agurretan eskerak eta goraintziak tartekatu ziren, eta publikoaren txalo artean itxi zen saioa. ATARIAren hitzorduak beste urte batez erakutsi du bertsoa aparteko tresna dela komunitatea biltzeko, galderak sustatzeko eta hausnartzeko.

Iragarki laburrak

Salgai

Motoa. T2022ko Keeway RKF 125cc motoa salgai. Oso gutxi erabilia (2.000 km). Beti garajea gordeta. Informazio gehiago whatsapp 673211101 zenbakian.



Amaia Agirrek proposatutako gaiei abestu zizketen bertsoak Ibarzabalek, Egañak, Arregik, Colinak, Enbeitak, eta Illarregik. A. ARROYO

57 talderekin hasiko da Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketa

Hirugarren aldia izango da Gipuzkoan taldekako txapelketa egingo dutena, eta inoiz baino parte hartze handiagoa izango da aurten • Aurreko biak 1999an eta 2017an jokatu ziren.

-ASIER IMAZ Villabona

Datorren astean hasita 100 saiotik gora izango dira Gipuzkoako Herriarteko Bertsolari Txapelketari esker. Villabona-ko Subijana etxean aurkeztu dute txapelketa, eta esan dute taldekako txapelketak, bana-koekin alderatuta, emaitza desberdinak dakartzala: «Bana-kako txapelketak norbana-koen arteko lehian oinarritzen dira. Bertsogintza modu kualitatiboan hazteko baliagarriak dira, noski, bertsolari bakoitza duen onena ematen saiatzen baita». Taldekakoan, berriz, helburuak bestelakoak direla esan dute: «Eskualde mailan, bertso eskolen arteko saretzea eragingo duen txapelketa izango da». Generoaren ikuspegitik emakume eta genero disidentearen parte hartzea sustatu nahi izan dutela adierazi dute.

Hainbat fase

Talde bakoitzak bost partaide izango ditu, gutxienez. Hiru bertsolari: saioetan hiru edo lau bertsolarik abestuko dute, baina taldean kide gehiago ere izan daitezke. Gai jartzaile eta epaile bana ere izan beharko dute taldeek. Eta ordezkari bat ere badute bilketa, komunikazio edo antolaketa lanak egiteko. 57 taldek hartuko dute



2017ko finaleko irudia; finala Azpeitian izan zen. J.M.

parte herriartekoan. Aurreko herriartekoetan, 24 eta 38 taldek eman zuten izena hurrenez-hurren, eta kopuru aldetik goranzko jauzia nabarmena izan da.

Faseei dagokionez, lau fase-tan banatuko da Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa: lehen fasea, bigarren fasea, finalaurrekoak eta finala. Lehen fasea izango da akaso bereziena egitura aldetik. Gipuzkoako zortzi azpieskualde banatu dira faseak jokatzeko: Buruntzaldea, Urola, Urola-kosta, Debarrena, Debagoiena, Tolosaldea, Goierri, Donostia eta Oarso-Bidasoa. Fase horretan, eskualdeka zein motako fasea antolatuko den erabaki dute eskualde mailako antolatzaile eta taldeetako ordezkariak. Eskualde bakoitza izango da beraz, fasearen sortzaile eta arduraduna. Eskualdeka talde antolatzaileak sortu dira eta el-

karren arteko lankidetzan sortu eta antolatuko dira faseak. Fase hau urtarrilaren 18tik martxoaren 28ra bitarte jokatuko da. Fase horretatik zortzi talde garaile aterako dira, eskualde bakoitzetik bana. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, «fase honetan ia 40 bertsolari ariko dira lehen aldiz oholtzan, eta hori bezain berri ona dena, beste horrenbeste lagun ariko dela antolatzen eskualde mailan ekimena».

Lehen fasearen ostean, bigarren fasea jokatuko da, lau saiorekin. Lehen fasean aurre-egingo duten zortzi talderen artean jokatuko dira saio horiek, eta eskualde bakoitzak izango du talde ordezkaria. 8 talde horietatik 4 sailkatuko dira final-aurreko saioetara. Bi saio jokatuko dira fase horretan, areto handiagoetan. Finala maiatzaren 30ean jokatuko da Aiako probalekuan.

Bihar aurkeztuko dituzte Zubiberriko bost proiektuak

Topic-en izango da, 18:00etan, eta bost proiektuen ezaugarriak azalduko dituzte • Ostegunean zabalduko dute tolosarrentzat bozketarako epea

-ERREDAKZIOA Tolosa

Ura Uraren Euskal Agentziak eta Tolosako Udalak iragarri zuten moduan, Zubiberria zein proiektuk ordezkatzeko duen bozkatzeko aukera izango dute herritarrek. Proiektu-proposamen berriak egiteko prozedura irekia deitu zuen Urak, eta aurkeztutako lanen azterketa teknikoa eginda, bost proiektuk pasa dute galbahea. Horiek aurkezteko saio irekia egingo dute bihar 18:00etan, Topic museoko Antxon Elosegui antzokian. Proiektua hautatzeko

prozesuak bi fase izango ditu. Lehenik, proposamen guztien azterketa teknikoa egin du Urak, eta ondoren, formula bidez automatikoki ebaluatuko diren bi aldagai finkatu dituzte: batetik, herri bozketa egingo da, *Erabaki* plataforma erabilita –presentzialki bozka emateko aukera ere bermatuko dute–. Azken emaitzan % 40ko balioa izango du puntuazio horrek. Bestetik, proposamen ekonomikoa ebaluatuko dute, eta gainerako % 20ko balioa izango du. Herri-bozketa ostegunean hasiko da.

Zaintza Plana ezagutzeko aukera

-ERREDAKZIOA Alegia

Hilabeteak daramatza martxan Alegia Zainduz prozesu parte hartzaileak. Alegiako Udalak koordinatzen du ekimena, eta hainbat fase garatu dituzte dagoeneko. Herriko hainbat eragile hartu dute parte adinekoen zaintza erdigunean jartzen duen ekimen horretan; eta, hain zuzen, horiek guztiek osatzen dute Zaintza Mahaia. Maiatzean galdetegi bat prestatu zuten herritarrek zaintzaren inguruan zuten iritzia emate-

ko, eta horrek Alegiak zaintza-ren inguruan duen egoeraren argazki bat egiteko balio izan zien.

Galdetegi horretan jasotakoekin eta zaintzaren inguruan inplikazio zuzena duten eragile ugariaren ekarpenekin, Zaintza Mahaia hainbat behar identifikatu eta Zaintza Plana osatu du hemendik aurrera egin beharreko esku hartzeekin. Bada, plan horren berri herritarrei emateko aurkezpen irekia egingo dute etzi, hilak 22, 16:30ean, kultur etxean.

hilberriak
urteurrenak • eskertzak

atarian JARRITA GUKAN ETA GOIERRIKO HITZAN DOAN

ESKELAK • ataria@ataria.eus • 943 65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30 arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

TXIKIA (82 mm X 63,5 mm): 130 € • Harpidedunentzat 65 €

HANDIA (124 mm X 63,5 mm): 180 € • Harpidedunentzat 90 €

ESKERTZA (38 mm X 63,5 mm): 80 € • Harpidedunentzat 40 €
BEZa barne



J. M.

«Harrituta nago zenbat jende ibiltzen den»

Ana Hernandez Atxulondoko arduraduna

Zizurkilgo Joxe Arregi plazan dagoen Atxulondo taberna-jatetxearen ardura hartu du lasartearrak. Donostian lan egin ondoren, herri txikiagoetako giroak erakarrita etorri da. Ilusioz hasi du bidea.

-JON MIRANDA Zizurkil

Ostalaritzan esperientzia luzea du Ana Hernandezek (Lasarte-Oria, 1983) eta ilusioz ekin zion Zizurkilgo Atxulondo kultur etxeko taberna-jatetxearen kudeaketari joan den abenduaren 4an. Galderei gaztelaniaz erantzun die, nahiz eta euskara ulertzen duen, eta bezeroekin oinarrizko elkarrizketak euskaraz izaten dituen.

Zer moduzko martxa daramazue lehen hilabeteen?

Uste baino hobea. Donostia-ko taberna eta jatetxeetan lan egindako naiz eta nahiz eta Lasarten bizi naizen, Andoaindik haragoko zonaldea ia ez nuen ezagutzen. Aitortzen dut herri txikiagoekiko aurreiritzia nuela. Iruditzen zitzaidan Zizurkil bezalako herrietan ez zela hainbeste jende ibiltzen, baina harrituta nago, plaza inguru honetan beti dabil jendea. Sorpresa polita izan da eta sumatu dut herritarren babesa hasierako egunetan.

Zein baldintzetan hartu duzue tabernaren ustiaketa?

Bi urterako kontratua sinatu dugu, lau urtera zabaltzeko aukerarekin, eta baldintza oso egokietan, gainera. Interneten izan nuen deialdiaren berri eta gehiegi jakin gabe eman nuen izena. Ez naiz damutzen. Udalak erraztasun handiak eman dizkigu.

Konpetentzia al dira inguruko tabernak?

Inondik inora. Uste dut elkarrekin lan egitera behartuta gaudela, denon komenientziarako izango baita. Iritsi bezain laster jarri nintzen harremanetan Egurriko eta Pasuseko arduradunekin eta oso eskertuta nago egin didaten harrerarekin eta eman didaten laguntzarekin. Xabi Tello tabernako aurreko arduradunak ere asko lagundu dit.

Zein bezero etortzen dira tabernara?

Askotariko jendea etortzen zaigu. Kultur etxeko ikastaroetara datozen ikasleak, umeen gurasoak, langile jendea... Astean

zehar, esango nuke, familia giroko publikoa izaten dugula nagusiki. Asteburuetan, berriz, afaltzera eta, gazte kuadrillak etortzen zaizkigu. Egia esan, tabernaren kokapena zoragarria da eta mugimendu asko izaten dugu.

Zenbateko lantaldea osatu duzue?

Lau lagunek osatzen dugu, oraingoz. Sukaldari bat eta zerbitzatzen eta barran beste hiru pertsona ibiltzen gara. Oraingoz moldatzen gara dagoen eskariari erantzuteko, baina jende gehiago beharko bagenu prest gaude gehiago kontratatzeke. Jantokian 50-60 pertsona sartzen dira, seinale ona litzateke dena beteta edukitzea.

Zer nolako eskaintza egiten duzue?

Eguneroko menua 14 euroan ematen dugu asteartetik ostiralera. Aste osorako menu bakarra prestatzen dugu, baina zortzi bat lehenengo plater eta beste hainbeste bigarrenengo eskaintzen ditugu, hortaz, badago aukera. Saiatzen gara bertako osagaiekin menua osatzen. Gertuko ekoizleei erosten dizkiegu produktuak. Gero, asteburuan, errazioak, ogitartekoak eta hamburgeresak eskaintzen ditugu, eta horrekin batera, plater bereziak, adibidez, bakailaoa pil-pil erara edo txuleta. Orain, sagardotegi menua ere eskaintzen dugu denboraldia den garaian.

Eskaintzen duzuenetik zerk du arrakasta gehien?

Hanburgeseak, adibidez. Goyari erositako haragiarekin prestatzen ditugu eta arrakasta handia dute. Bestela, barran pintxoak eskaintzen ditugu eta jendeak asko eskatzen ditu. Guk egindako bizkotxo eta pastelak ere gustura hartzen ditu bezeroak.

Zein bereizgarri du Atxulondo jatetxe-tabernak?

Oso herrikoia dela. Lantaldeko kideak gogaituta geunden dagoeneko Donostiako azkenaldiko joerarekin, han dena antolatzen dute turistari atsegin emateko. Ni eskola zaharrekoa naiz eta nahiago izaten dut beste modu batera lan egin: bertako jendearekin eta bertako produktuekin.

Zein ordutegitan zabaltzen duzue taberna-jatetxea?

Astelehenetan hartzen dugu atseden, eta gainerakoan, astearte, asteazken eta ostegunetan 09:00etatik 21:00etara irekitzen dugu. Ostiral, larunbat eta igandeetan, berriz, 11:00ak aldera zabaldu eta gauerdia arte egoten gara.

Gaixotutako zuhaitzak bota eta berriak jarriko dira

-ERREDAKZIOA

Amasa-Villabona

Villabonako kaleetan dauden 30 zuhaitz moztu eta beste horrenbeste zuhaitz berri lantatzea erabaki du Amasa-Villabonako Udalak. Guztira, 13.480 euroko inbertsioa egin du arbola berriak erosteko eta udal lorezaintza zerbitzuko langileak arduratuko dira mozketa eta landaketa egiteaz.

Azken hilabeteetan udalak herrigunean zeuden zuhaitzen azterketa sakona egin du, banaka-banaka, eta hainbat arrazoiengatik egoera txarrean dauden zuhaitz guztiak identifikatu ditu. Honenbestez, 30 zuhaitz moztea eta beste horrenbeste zuhaitz berritzea erabaki dute.

Udalak esan du kenduko dituzten zuhaitzak egoera fitosanitario txarrean zeudela,

asko gaixorik, eta batzuk ere arriskutsuak izan zitezkeela herritarrentzat, erortzeko puntuan baitzeuden. «Villabonako herriguneko zuhaitzen egoera hobetzea, zuhaitz berri osasuntsuak lantatzea eta gerta zitezkeen istripuak saihestea izan da lanen helburua», esan dute udal ordezkariak.

Landaketa berriak

Bertako espezieak lehenetsi dira landaketa berriak egitekoan; lizarrak, gaztainondoak eta haritzak landatu dira, besteak beste. Horiekin batera, udalak jakinarazi du zuhaixkak ere landatuko direla, hala nola erramuak.

Prebentzio jarduera honekin udalak esan du herriko berdeguneen egoera hobetu nahi duela, ingurumena zaindu eta herritarrei guneko publiko «seguruagoak eta atseginagoak» eskaini nahi dizkie.

Igandeetan ez dute organikik bilduko Anoetan

ANOETA / Hondakin organikoaren bilketa egun bat kendu dute Anoetako udalerrian, igande goizetakoa, hain zuzen. Hori dela eta, hondakinen inguruko bestelako informazioa azaltzen duen eskuorria eta imana herriko etxe guztietara helarazi du Anoetako Udalak. Bertan jasoko dituzte herritarrek hondakin bilketaren inguruko informazioak.

Elektrizitate ezagutzei buruzko ikasketa Zizurkil

ZIZURKIL / Etxean konponketa errazak egiteko elektrizitatearen oinarrizko ezagutzak landuko dituzte Herribizigune kooperatibak antolatutako ikastaro batean. Saioa irekia eta doakoa izango da herritar guztientzat baina aurrez eman beharko da izena 656 743 741 telefonoan. Herribiziguneko topagunean egingo dute ikastaroa ostiralean 18:30ean.

Galdutako gauzak jaso daitezke hilaren 31ra arte

ANOETA / Udalak herritarrei gogorarazi die udaletxean gordeta dauden galdutako gauzak berreskuratzeko azken eguna urtarrilaren 31 dela. Behin data hori pasata, inork jasotzen ez dituen objektuak ezingo dira gehiago berreskuratu. Galdutako gauzak berreskuratzeko edo aurkitutakoak uzteko zerbitzua dute udaletxean martxan astelehenik ostiralera.

Pantaila eta soinu sistema berriak Subijanako aretoan

AMASA-VILLABONA / Udalak ia 7.000 euroko inbertsioa egin du Subijana etxeko areto nagusian ikus-entzunezko sistema digital berria instalatzeko. 98 hazbeteko pantaila handi bat jarri dute agertokian gurgildun euskarri bati lotuta; 43 hazbeteko beste pantaila osagarri bat ere jarri dute sabaitik zintzilik atzealdeko ikusleentzako.

Inauterietako doinu berriak Leidor aretoan entzungai

Et Incarnatus orkestrak 'Kaletik orkestrara' diskoa grabatu du Tolosako elkarteetako txarangen doinuekin. Otsailaren 8rako antolatu duen kontzertuan aurkeztuko du.

—LEYRE CARRASCO

Inauteri doinuekin diskoa grabatu du Et Incarnatus orkestrak, *Kaletik orkestrara* izenburupean. Tolosako elkarteetako txarangen dozena bat kantu aukeratu eta orkestrako doinuek moldatu dituzte. Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren babesarekin gauzatu dute proiektua, eta hainbat artistaren laguntza izan dute, besteak beste, Luis María Moreno *Pirata*, Koldo Tarragona, Xabier Zeberio, Iñar Sastre eta Jon Esnaola.

«Tolosako inauterietan oso sartuta dagoen jendea da. Haiek aukeratu dute arrazoi bat edo besterengatik nahi duten doinua, eta beraiek moldatu dituzte nahi bezala eta nahi zuten instrumentuekin», azaldu du Migel Zeberio Et Incarnatus orkestrako zuzendariak. Askotariko moldaketak daudela gaineratu du: «kantuak beren horretan hartu eta aldaketa txiki batzuk egin dituztenak daude batetik, eta aldaketa oso handiak egin dituztenak bestetik».

Zeberio kontatu bezala, Xabier Berasaluze *Leturiaren* eskutik etorri zitzaion diskoa grabatzeko proposamena: «Artista



'Kaletik orkestrara' diskoa aurkeztu zuten iragan ostegunean. A. IMAZ

asko daude aspalditik taldearekin erlazioa dutenak, eta horietako bat da *Leturia*, saltsero hutsa. Karpeta bat du bere ordenagailuan kantu ugariarekin, eta urtero deitzen dit horrekin zerbait egin behar dugula esanez. Udaberrian, elkar zertxobait engainatuta, 25 musikari inguruko kuadrilla handi bat elkartu ginen».

Horren emaitza izan da *Kaletik orkestrara* diskoa. Besteak beste, San Esteban, Arco Iris, Kasino, Txinparta, Gure txokoa, Sukalde, Itun Txulo

eta Ero Etxe elkarten doinuen moldaketak bildu dituzte. Diskoaren azaleko protagonista Ignacio Mokoroa konpositorea da, Santa Maria elizako organista, San Esteban txaranga zuzentzen bertako ereserkia sortu berritan, 1971. urtean.

Ez da orkestrak halako disko bat grabatzen duen lehen aldia; 2004an *Troika-Tolosako inauteriak* izeneko diskoa kaleratu zuen Elkar diskoetxearekin; 2006an, Mutiko Alaiak peñaren 75. urteurrenean, *San Fermin. Muthiko Alaiak* ize-

neko Iruñeko jaietako piezen moldaketak biltzen dituen diskoa grabatu zuen; eta ondoren, *Troika 2* diskoa argitaratu zuen Kaxoiarekin batera. «Guk ez dugu musika klasikoa bakkari egiten, herri musikarekin bertsioak egitea beti izan dugu gustuko eta forma oso desberdinetan egin dugu», gaineratu du Zeberio.

Azken lan honekin herriko txarangek eta bandek egiten duten lanari balio eman nahi izan diote. «Herri musika gauza oso orokorra da, baina Tolo-

san, herri musika egiten dutenek sekulako ekarpena egiten dute. Azkenean, gauza oso sentikorra edo bukolikoa da, eta proiektu hau haiek omentzeko eta herriari ekarpen bat egiteko da», azpimarratu du.

Kontzertua Leidorren

Orkestrako soka tresnak izango dira nagusi pieza bakoitzean, baina tarte batean haizezko instrumentuak ere entzun daitezke. «Jendeak sinistu ezin duen kolore bat emateko» dela dio zuzendariak, baina hori guztia Kaldereroen bueltako astebururako antolatu duten kontzertu berezian ikusi eta entzuteko aukera izango da. Otsailaren 8an egingo dute, 19:00etan, Leidor aretoan. Sarrerak 20 euro balioko du, eta bertaratzen diren herriarrek sarrerarekin batera diskoa jaso dute opari.

Moldaketa horiek entzuteaz gain, inauterietako ohiko kantuak abesteko aukera ere izango da kontzertuan, eta Tolosako hainbat taldek ere parte hartuko dute. Sorpresa ugari izango direla eta emanaldi berezia izango dela esan du Maddi Garikano taldekideak: «Inauterien hasiera izango da, eta saltsa egongo da ordurako. Normalean data horietan ohituta gauden musika entzungo dugu, baina beste modu batean eta uste dut jendeari gustatuko zaiola». Garikanok aipatu du diskoa bi egunetan grabatu zutela, eta horrek indarra eta freskotasuna eman diola lanari. «Taldekide bakoitzak etxean lan handia egin du, eta emaitza oso polita izan da».



«Hainbeste urtetan iraun badugu, elkarren artean gustura gaudelako da»

Migel Zeberio
Zuzendaria

Et Incarnatus orkestrak 30 urte betetzen ditu aurten. Felipe Gorriti konpositorearen heriotzaren ehungarren urtemugaren harira, hainbat kontzertu izan ziren 1996an. Bada, horietan parte hartu zuten dozena bat musikari gaztek sortu zuten taldea, Migel Zeberio (Tolosa, 1966) gidaritzapean. Askotariko lanak egin dituzte, tartean, inauterietako abestiak orkestrako doinuek entzun ahal izan dira eurei esker. Zeberio adierazi du hiru hamarkada eta gero «gogotsu» dagoela taldea, eta urte hauetako bilakaeraren berri eman du.

Nola borobiltzen dituzue 30 urte hauek?

Urte guzti hauetan zahartu egin gara. Ideia utopikoa zena finkatu egin da denboran. Ni

izango naiz taldeko zaharreneetakoa. Kontuan izan behar da Euskal Herri osoko eta Euskal Herritik kanpoko musikariak ere badaudela taldean. Garai hartan musikari asko adingabeak ziren eta Et Incarnatus jolas moduan zuten. Genuen esperientzia eta eskarmentua oso oinarritzkoa zen, baina ilusioa beti izan dugu. Denbora-rekin bilakaera bat egon da; batzuk ama edo aita izan dira, eta orkestra denbora batez utzi beharra izan dute, eta ondorioz, batzuk sartu eta beste batzuk atera egin dira. Bizitzari lotutako gorabehera horiek politak dira. Politak da pertsona bat bueltan izatea gaztetan bizitu duen zerbaitea. Beraz, taldean denetarik dugu, gazteak nahiz helduak.

Zenbat musikarik osatzen duzue taldea?

30 urte hauetan Euskal Herrian musikari kopurua asko igo da, eta gaur egun, kalitatezko musikari ugari daude. Lehen ez zegoen musika ikasteko hainbeste aukerarik. Orain, baditugu proiektu batzuk 30 lagun inguru biltzen garenak.

Zer moduz moldatzen zarete zuen artean?

Gure taldeak hainbeste urtetan iraun badu elkarren artean gustura aritzen garela izan da. Jendea profesionala denez, nahiko lanpetuta egoten da, baina kosta ala kosta beti lortzen dugu elkartzea. Talde handia gara, eta beti dago arrazoi batengatik edo besterengatik proiekturen bat ho-

beti datorkiona. Izan ere, guk proiektuak egiten dugu lan. Gabonetan, esaterako, familiar bete beharrekoak zituzten batzuk alde batera geratu ziren *Kaletik orkestrara* diskoa grabatzeko, baina orokorrean, gainontzeko egistamoetan parte hartzen dute. Aipatzeko da taldean oso garrantzitsua den kideetako bat gure sukaldari Kontxi Belauntzaran dela; taldea ez dugu soilik musikariek osatzen, kudeaketan aritzen direnak ere badaude. Azken urteetan dinamika hori asko finkatu da Ur Muga proiektuagatik. Izan ere, urtero tarte luze batez elkarbizitzeko egokitzen zaigu proiektu horrengatik, eta eginkizun asko izaten dira, musikatik aparte.

Alpino Uzturre elkarteak bere bi taldeak aurkeztu ditu

Mendi elkarteak iraupen eski taldearen eta mendi lasterketa taldearen berri eman du; iraupen eskian Euskal Herrian hiru talde bakarrik daude.

-ERREDAKZIOA Tolosa

Tolosako Alpino Uzturre elkarteak mendi lasterketa eta iraupen eskiko taldeak aurkeztu ditu. Mendian lasterka ariko diren taldekideak aurkeztu ditu Alpino Uzturre elkarteak Asuncion Klinika babeslearen aurrealdean. Guztira, 20 kidek osatuko dute taldea, eta dagoneko, begiz jota dituzte zenbait lasterketa.

Elkartea tolosarra bada ere, Euskal Herriko beste hainbat lekutako taldekideak dituzte. Andoni Uzkiario donostiarrak azaldu du talde parekidea osatzeari izaten dutela helburu: «Hamar emakumek eta hamar gizonek osatuko dugu aurreko taldea».

Uzkianok aipatu duenez, orokorrean bakoitza prestatzen da bere aldetik: «Batzuek dena euren kabuz egiten dute, eta beste batzuek badituzte nutrizionistak, entrenatzaileak... Dena dela, elkarteak laguntza ematen digu behar dugun edozein arlotan». Orokorrean nork bere aldetik entrenatzen badu ere, gehitu du saiatzen direla elkartzen: «Elkar ezagutzeko eta entrenatzeko ere oso aberasgarria da elkarrekin aritzea. Gainera, beti arinagoa da taldean entrenatzea, bakarka baino».

Lehen lasterketak «berehala» hasiko direla ere aipatu du korrikalariak eta, hortik



Alpino Uzturre elkartearen mendi lasterketako taldea. A. ARROYO

aurrera, «urtea amaitu arte astebururako» izango dituztela lasterketak. Zentzu horretan, helburuei dagokienez taldeak «askatasun osoa» ematen diela ere esan du: «Bakoitzak jartzen ditu bere helburu pertsonalak, eta taldeak erabateko askatasuna ematen digu horretan».

Hari berari tiraka gehitu du aurreko klubaren arteko txapelketako probetan parte hartzeko eskatu dietela, eta T3T lasterketa nabarmendu du: «Aurreko egina da, eta galdu ezin den hitzordu horietako bat izango da».

Taldekideen inguruan, askotariko profilak aipatu ditu Uzkiario: «Batzuk ultratrail probetan aritzen dira gehiago, beste batzuk, berriz, lasterketa motzagoetan... Denetik daukagu».

Aurkezpena Larra Belaguan

Iraupen eskiko taldearen aurkezpena Larra Belaguan egin zuen Alpino Uzturrek. Elkarrekin zorioneko jarraitzen du aurreko ere. Garai zailak dira iraupen eskia praktikatzeko, eta horren erakusgarri da gaur egun Alpino Uzturre taldea dela Euskal Herriko talde bakarra, Ipar Irrintzi eta Uhartea nafarrekin batera. Praktika hau bultzatzailea izan zen klubaren sorreran, eta, horregatik, bizirik irauteko lanean jarraitzen dute. Horretarako, taldeak Tolosako Udalaren eta Panelfis Groupen ezinbesteko laguntza jasotzen du.

Taldearen denboraldiaurrea irailean hasi zen, gorpil gaineke eskiarekin, azaroaren hasierara arte. Ondoren iraupen eskiaren lehiaketak hasi ziren, eta martxora arte iraungo dute.

Abenduan eta urtarilean, klubak teknifikazio jardunaldiak antolatu zituen gazteenzat. Bertan, profesional tituludunak egon ziren jardura horiek zuzentzen.

Denboraldi honetarako Alpino Uzturrek 14 eta 16 urtez azpiko mailetako parte hartzaileak ditu. Maila horietan, Espainiako txapelketak lehiatuko dira. U18 kategorian nazioarteko txapelketetan ere lehiatuko dira, hain zorroztza den lehiaketa batean ahalik eta postu altuena lortzeko.



Alpino Uzturre elkartearen iraupen eskiko taldea. ALPINO UZTURRE



Lehen korrika saioak

Eroie-Etxe elkartearen krozean parte hartze handia izan zen beste behin. Infantiletan Josu Matxain (Herrikide) eta Irina Mendizabal (Laskorain) izan ziren azkarrenak; alebiretan Xabier Larrañaga (Samaniego) eta Ane Aranberri (Herrikide); eta benjaminetan Ibai Saizar (Laskorain) eta Idoia Saizar (Laskorain). L. CARRASCO



Patinetean ikusgarri

Egun osoko festa antolatu zuten Anoetan larunbatean, Anoeta Sutan izenburupean. Eguraldiagatik pilotalekuan egin zituzten ekitaldiak, eta jendez lepo bete zen. Besteak beste, Scooter Txapelketa antolatu zuten, eta patinatzaileek sekulako abilezia erakutsi zuten. Irabazle nagusia Lukas Piqueras izan zen. Piper pikanteak jateko txapelketan Franco Carvacho nagusitu zen. A. IMAZ



Irudia Anoeta



Xabier Tolosari omenaldia herrian

Xabier Tolosa anoetarrak pilotari profesionala izateari utzi berrio dio lesio bat tarteko. Bere lagunek, Kuku Pilota Eskolak eta Behar Zana pilota elkarteak omenaldia antolatu zuten herrian berarentzat, eta herritar ugariak parte hartu zuten. ATARIA

Oier Zubeldiak irabazi du Garingo Mendi Lasterketa

-ERREDAKZIOA Amezketak

Martxan da 2026ko Goierri Kopa Traila. Garingo Mendi Lasterketak eman zion igandean hasiera denboraldiari, eta lasterkariek argi utzi zuten maila altua dagoela aurten ere. Iaz bezala, Oier Zubeldia amezketarra eta Irati Zubizarreta beasaindarra izan ziren helmugaratzen lehenak. Zubeldiak 59.51 behar izan zuen 12,20 kilometroko ibilbidea osatzeko, eta Zubizarretak, berriz, 1.16.23. Gizonezkoetan, Zubeldiaren atzetik Aitor Zununegi legorretarra (1.01.18)

eta Mikel Usandizaga aiarra (1.02.08) iritsi ziren.

Emakumezkoetan Eider Zubeldia amezketarrak gutxigatik ez zuen podiuma zapaldu. Laugarren postua egin zuen 1.19.11 denborarekin, Adirane Peñagarikano urretxuarraren-gandik 30 segundora.

Berrehundik gora korrikalarik parte hartu zuten proban. Ibilbide osoan zehar lokatz ugari izan zuten, eta freskura nagusitu zen; hala ere, ateri eutsi zion. Eguraldia goibela izan arren, Trapalata Txarangak giroa alaitu zuen, eta jende ugari joan zen Beasaingo auzora.



Oier Zubeldia helmuga zeharkatzen. GOIERRIKO HITZA

Jaka eta Iztueta irabazle Peña II.a eta Imazen aurka

Binakako Pilota Txapelketan beste puntu bat lortu dute Jakak eta Iztuetak, eta bosgarren garaipena lortuta bosgarren postuan daude • Altuna III.ak eta Ezkurdiak galdu egin dute.

-ERREDAKZIOA

Binakako Pilota Txapelketako hamargarren jardunaldia jokatu dute asteburuan, eta eskualdeko pilotarien arteko neurketan Jaka lizartzarra eta Iztueta tolosarra gailendu dira Peña II.a tolosarraren eta Imazen aurka. Jon Ander Peñak bigarren ordezkatu du Artola alegiarra. Jakak eta Iztuetak 22-15 irabazi dute. Hori horrela, bosgarren garaipena lortu dute eta bosgarren postuan daude. Artola eta Imaz, bestalde, lau garaipenekin geratu dira, eta zazpigarren postuan daude. Liga horrela bukatuz gero, txapelketatik kanpo geratuko litzateke bikotea.

Altuna III.a amezketarrak eta Ezkurdiak galdu egin dute 15-22 Zabala eta Martija bikoaren aurka. Lau garaipenekin jarraitzen dute Altunak eta Ezkurdiak eta seigarren postuan daude. Lau partida falta dira liga bukatzeko eta esan daiteke hemendik aurrera neurketak bakoitza final bat bezalakoa izango dela eskualdeko pilotarientzat.

Serie B Txapelketan, Gabirondo gazteluarrak eta bere aurrelari Muruak partida irabazi dute 22-15 Rekalde eta Bikuñaren aurka, eta bigarren postuan daude zazpi garaipenekin. Ugartemendia alkizarrak eta Senar bere aurrelariak 22-8 galdu dute Agirre eta Morgaetxebarriaren aurka. Agirrek Peña II.a ordezkatu du eta Morgaetxebarriak Salaverri II.a. Hori horrela, Senar-Ugartemendia lau garaipenekin zazpigarren postuan daude, eta Peña II.a-Salaverri II.a bikoak zazpi garaipen ditu eta hirugarren postuan daude.

Emakume Master Cup

Behar Zana elkarteak Itxaso Erasun zizurkildarrak ez du garaipena lortu asteburuan jokaturako Emakume Master



Itxaso Erasun, ezkerrean, partida jokatu aurretik. E.M.C.



Migel Soroaren Oroimenezkoaren elite mailako protagonistak. ATARIA

Cup binakako txapelketan. Ibarrola aurrelariarekin batera, 22-9 galdu dute Arrizabalaga eta Bergara bikotearen aurka. Arrizabalaga-Bergara biko nagusitu da partidari, eta hiru partidetatik hirurak irabazi dituzte. Hurrengo jardunaldia Amezketan jokaturako da.

Migel Soroaren Omenezkoa

Tolosako Beotibar pilotalekuan XII. Migel Soroaren Oroimenezkoaren CMO Valves Txapelketaren jardunaldi berri bat jokatu da. A multzoko bikoteen artean jokatu dituzte partidak. Etorkizuneko mailan, Perez (Lapke) eta Elola (Lapke) bikoteak 18-14 irabazi du Egurrola (Markina) eta A. Etxeberria (Tolosa) bikoaren aurka. Lehen mailan, Zabaleta (Oiarpe) eta A. Balerdi (Oberena) bikoak 12-22 galdu du Nazabal (Larraun-) eta Sotil (Larraun) bikotearen aurka. Elite mailakoan, berriz, Fernandez (San Cosme) eta

Arbizu (Irurtzun) bikoak 22-11 irabazi dio Oihan Etxeberria (Oiarpe) eta Oriden (Lapke) bikoteari.



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak Udaltzaingorako 12 TRAFIKO LAGUNTZAILE hautatu behar ditu, Inauterietan jarduteko. Zehazki, otsailaren 15ean igandean, otsailaren 16an astelehenean eta otsailaren 17an asteartean lanean aritzeko izango da. Oinarriak eta hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaera orria Tolosako Udaleko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharrako 6 A zokian, baita udaleko web orrialdeko lan-eskaintzak atalean (www.tolosa.eus) ere. Eskaerak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 27ko 13:00etan, bukatzen da.

Tolosa, 2026ko urtarrilaren 16an.
Giza baliabideetako
zinegotzi delegatua.
Miren Yosune Sanz Vidal.



Astearte,
2026ko urtarrilaren 20a

URTEKO HARPIDETZA KUOTA 98€
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Eider Aierbe Isasti
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus

Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaidea: 687 410 022.
anoetaidea@ataria.eus
Ibarraidea: 687 410 118.
ibarraidea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46



ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Ballarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Gipuzkoako Foru Aldundia
Tolosaldeko gizarte eragileak
GALTZAUNDI
Txolarrre
berria
BERTAKO HEDABIDEAK

ASTEARTEA 20

AGENDA

Deialdiak

Alegia. Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza ohituretan? tailerra, UEMAK antolatuta. Kultur etxean, 18:00etan.
Anoeta. Korrika antolatzeko bilera irekia. Eragileen lokalean, 18:30ean.
Tolosa. *El crisol; Las brujas de Salem* aztergai irakurketa Klubean. Liburutegian, 18:00etan.
Tolosa. *Etxebizitza politika* herrian solasaldia, Xabi Astigarra legebiltzarkidearekin eta Ander Figuerido Etxebizitza zinegotziarekin. Kultur etxean, 18:00etan.

San Sebastian Eguna

Berastegi. Meza Erretore etxeko kaperan, 11:00etan.
Leaburu-Txarama. Meza San Sebastian ermitan, 17:00etan. Ondoren, herriko dantzarien saioa. Bukatzeko, merienda herriko ostatuan.
Orendain. Kalejira 10:45ean, trikitilariarekin, plazatik San Sebastian ermitara. 11:00etan, meza. Ondoren, hamaiketako kultur etxean. 14:00etan, bazkaria elkartean.

Erakusketak

Tolosa. *Txotxongilo kontzientea*, Topic-en.
Tolosa. *Kolyada* Topic-en.
Tolosa. Aitor Ruiz de Eguino eskultore, margolari eta zeramistaren erakusketa Frontonen.
Tolosa. *EmakumeARTEan* Aranburun.
Tolosa. Juanan Zubeldiaren erakusketa, 3 tabernan.

FARMAZIAK

Egunekoa

Villabona. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria 34. 943 69 11 30.

Gauekoa

Tolosa. Edurne Bengoetxea Aiestaran. Kale Nagusia 7. 943 67 06 48.

EGURALDIA

Iker Ibarluzea



Gaur. Hodei askorekin hasiko da eguna, eta tantaren bat eror badaiteke ere, orokorrean ateri eutsikodio. Arratsaldeko lehen orduetan hodeiak eta ostarteak nagusituko dira, baina azken orduetan hodeiak ugaritu eta zerua estaliko da. Hego-haizeak joko du, eta tenperaturak gora egingo du gehienez 11-13 gradu harrapatuz.



Bihar. Zaparrada giroa nagusituko da goizean, nahiz eta ez den euri asko egite-rik espero. Arratsaldean euri-tarako joera areagotu egingo da, eta zaparradak mardulago botako ditu, bereziki azken orduan. Goizean hego-mendebaldeko haizea ibiliko da, arratsaldean ipar-mendebaldetik finkatuz. Hoztu egingo du, eta gehienez 9-11 gradura iritsiko dira termometroak.

ATARIA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Zeharbidea hobetzeko lanekin hasiko dira Berrobin

Helburua da abiadura murriztea, oinezkoen joan-etorria erraztea eta errepidea herrigunean hobeto integratzea da

-ERREDAKZIOA Berrobi

Gipuzkoako Foru Aldundiak Berrobiko GI-2130 errepidearen zeharbidean segurtasuna eta irisgarritasuna hobetzeko lanak hasiko ditu. Esku-hartzea Aldundiaren tokiko ekin-tzen planaren barruan kokatzen da, lanek 210.000 euroko aurrekontua dute eta bi hila-beteko iraupena aurreikusten dute. Helburua da trafikoaren abiadura murriztea, oinezkoen joan-etorria erraztea eta errepidea herrigunean hobeto integratzea.

GI-2130 errepidea eskualdeko sarearen parte da, Ibarra, Berrobi, Elduain eta Berastegi Tolosarekin lotzen dituen, eta Nafarroarako noranzkoko trafikoa ere bideratzen du. Egune-ko batez besteko 1.500 ibilgai-luko trafikoa du, eta gaur egun Berrobiko herrigunea bitan banatzen du. 900 metro inguruko zeharbide horrek erabilera publikoko gune garrantzitsuak bereizten ditu, hala nola ikasketxea eta plaza alde batetik, eta pilotalekua, futbol zelaia, jubilatuen etxea eta eliza bestetik. Pertsonen joan-etorria



Hainbat lan egingo dituzte zeharbidea hobetzeko. ATARIA

etengabea da, bereziki adinekoen eta haurren kasuan.

Proiektuak hainbat neurri jasotzen ditu bidearen integrazioa eta segurtasuna hobetzeko. Besteak beste, zirkulazio-abiadura murrizteko, galtzada eta espaloien arteko kotak berdintzeko eta oinezkoen pasabideak hobetzeko lanak egingo dira.

Antzi Etxearen parean, Berastegirako noranzkoan, lehen oinezkoentzako pasabidea al-

txatuko da, eta seinaleztapen berria jarriko da ikuspena eta segurtasuna handitzeko. San Andres elizaren eta farmaziarren artean, berriz, asfalto inprimatua ezarriko da, galtzada eta espaloiak integratzen dituen zoladura-tratamendu gisa, eta kotak berdinduko dituzte, kale-itxura indartzeko. Horrez gain, autobus geltokien artean dagoen oinezkoen pasabidean semaforoa jarriko dute la esan dute.



zozketak

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu



Semafora
haur antzezlan

Gomendatutako adina:
3-10 urte

Urtarrilak 24, larunbata
17:00
Tolosako Leidor

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu



Andereño
haur antzezlan

Gomendatutako adina:
7 urtetik aurrera

Urtarrilak 24, larunbata · 18:30 · Tolosako Topic

Zozketan parte hartzeko asteazkena 12:00ak arte 943 65 56 95 edo **Ataria.eus**

Atarikideentzat **sarrera bikoitza** dugu

Verde Prato
kontzertua

Urtarrilak 30, ostirala
20:00
Tolosako Leidor antzokia

